

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

UDALBATZAREN IDAZKARITZA NAGUSIA

Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren behin betiko onespena

2023ko apirilaren 21ean egindako ohiko bilkuran, hasierako onespena eman zion Vitoria-Gasteizko udalbatzak Vitoria-Gasteizko Udaleko dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorrari.

Erabaki horren jendaurreko erakustaldian (2023ko maiatzaren 8ko ALHAO, 53. zenbakia) erreklamazio eta iradokizunik aurkeztu ez denez, behin betikotzat jotzen da behin-behineko erabakia, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ildotik.

7/1985 Legearen 70.2 artikuluan aurreikusitakoa betez, testu guztia argitaratzen da, indarrean sartzeko baldintza gisa.

Behin betikotzat jotzearen kontra, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien salaren aurrean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10.1. b) eta 46.1 artikuluen ildotik, bi hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik, egokitzen jotzen den beste edozein aurkezteko aukera gorabehera.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko uztailaren 18an

Alkatea

MAIDER ETXEBARRIA GARCÍA



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

ERANSKINA

GASTEIZKO UDALAREN DIRULAGUNTZEI BURUZKO ORDENANTZA OROKORRAREN PROIEKTUA

ATARIKOA

-I-

Gasteizko Udalaren baliabide ekonomikoen parte handi bat dirulaguntzen bitartez bideratzen da, pertsonen eta entitate publiko nahiz pribatuen eskari sozial eta ekonomikoei erantzuteko asmoz, horiei beren finantzetan lagunduz.

Sustapen-lan hori askotariko jarduera-eremuetan gauzatzen da, besteak beste: kultura, turismoa, kirola, hezkuntza, gazteria, klimaren aldeko ekintza, lankidetzak, herritarren partaidetza, gizarte-politikak, genero-berdintasuna, sustapen ekonomikoa, plangintza estrategikoa eta euskara.

Horiek guztiak Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH) lerrokatuta daude. Mundu mailako helburuak dira, herrialdeek eta bertako gizarteek pertsona guztien eta planetaren bizitza hobetzeko ahaleginak egin ditzaten, ikuspegi soziala, kulturala, ekonomikoa eta ingurumenekoa kontuan hartuta, inor atzean utzi gabe, gizarte bidezkoago, libreago eta berdinzaleago bat garatzearren.

Gaur egun, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak (aurrerantzean, DLO) eta hura garatzeko erregelamenduak (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua) osatzen dute dirulaguntzen alorreko arau-marko espezifikoak. DLOren 3. artikulua bere aplikazio-eremu subjektiboaren barruan sartu ditu toki-administrazioa osatzen duten entitateak.

Bestalde, DLOren 17.2 artikulua xedatzen duenez, toki-korporazioen dirulaguntzak arautzeko oinarriak aurrekontua betearazteko oinarrien esparruan onetsi behar dira, dela dirulaguntzei buruzko ordenantza orokor baten bidez, dela dirulaguntza mota bakoitzeko berariazko ordenantza bana taxutuz.

Arau-marko horretara egokitzeko landu zen Gasteizko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantza, zeina 2005eko ekainaren 17an onetsi baitzuen behin betiko Udaltzako eta 2006ko urtarrilaren 13ko Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean (5. zk.) argitaratu.

Hamar urte baino gehiago igaro dira ordenantza hura onetsi zenetik, eta dirulaguntzei buruzko arau espezifikoetan eta administrazio-prozedura erkidearen arau orokorretan aldaketak egin direnez, beharrezkoa da ordenantza berria onestea, arau-marko horretara egokitzearren.

-II-

Toki erakundeek erregelamenduak egiteko duten ahalaz baliatzean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan jasota dauden erregulazio onaren printzipioak hartzen ditu aintzat Gasteizko Udalak.

Horrela, bada, ordenantza honek premia, efikazia, efizientzia, proportzionaltasun eta segurtasun juridikoaren printzipioak betetzen ditu, udalaren dirulaguntzen onuradunei



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

ERANSKINA

araudi propio bat ematen baitie, marko komun orokorra Gasteizko Udalaren berezko berezitasunetara egokitzen duena.

Gardentasun-printzipioaren ildotik, ordenantza lantzeko prozeduran parte hartzeko aukera eman zaie herritarrei, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan arau izaerako xedapenak izapidetzeko aurreikusitako bidetik; zehazki, kontsulta publikoaren tramitea, Gasteizko Udalaren webgunearen bitartez.

-III-

Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak (2005/03/02ko EHAA, 42. zk.) 2.5 artikuluan adierazten duenez, EAEko botere publikoek berdintasunerako klausulak txertatuko dituzte funts publikoen transferentzia formalizatzeko kontratu, dirulaguntza, hitzarmen edo bestelako dokumentuetan.

Bestetik, 4.5 artikulua dioenez, euskal botere publikoek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, halako moduz non horietan guztietan ezberdintasunak ezabatzeke eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko duten.

Aipatutako araudia betez, ordenantza honen 11.2 artikulua ezartzen du ezin izango direla onuradun edo entitate laguntzaile izan zirkunstantzia hauetan daudenak:

- Berdintasunerako eskubidea eta sexuagatiko eta/edo generoagatiko diskriminaziorik eza urratzeagatik administrazio-, lan- edo zigor-bidean zehapen irmoa jaso dutenak.

- Xedeak edo helburuak, onarpen- edo sarbide-sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduketa, antolaketa edo estatutuak genero-berdintasunaren printzipioaren aurkakoak izatea.

- Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legean edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritako betebeharrak ez betetzea.

- Sexuagatik eta/edo generoagatik diskriminatzen duten jarduerak sustatzea.

Azkenik, hizkuntzaren erabilera ez-sexistarako gomendioak betetzen ditu ordenantzak (martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 14.11 artikulua).

ATARIKO TITULUA

Xedapen orokorrak

I. KAPITULUA

Ordenantzaren aplikazio-eremua

1. artikulua.- Xedea



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

ERANSKINA

Ordenantza honen xedea da Gasteizko Udalaren dirulaguntzak emateko prozeduraren oinarri arautzaile orokorrak ezartzea.

2. artikulua.- Aplikazio-eremu subjektiboa

1.- Ordenantza hau Gasteizko Udalak emandako dirulaguntzei aplikatuko zaie, baita Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak (CEA), "José Uruñuela" Dantza Kontserbatorioak, "Luis Aramburu" Musika Eskolak eta sortzen diren beste erakunde autonomoek emandakoak ere.

2.- TUVISA (Gasteizko Hiri Garraioak sozietate anonimoa), AMVISA (Gasteizko Udal Urak sozietate anonimoa), 21 ZABALGUNEA SA udal sozietate anonimoek eta udal eskumenen esparruan sor daitezkeenek ematen dituzten dirulaguntzei ordenantza honetan jasotako kudeaketa- eta informazio-printzipioak aplikatuko zaizkie.

Nolanahi ere, dirulaguntzek harreman zuzena izan beharko dute horiek sortzeko arauan edo estatutuetan adierazten den jardueraren xede nagusiarekin.

3. artikulua.- Ordenantzaren aplikazio-eremutik kanpo utzitakoak

Ordenantzaren aplikaziotik kanpo geratuko dira kasu hauek:

1.- Onuradunak aldeztatik eskatu gabe ematen diren sariak.

2.- Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan aurreikusitako dirulaguntzak.

3.- Alderdi politikoen finantzaketari buruzko uztailaren 2ko 3/1987 Lege Organikoan araututako dirulaguntzak.

4.- Udal Erregelamendu Organikoan udal taldeentzat aurreikusitako zuzkidura ekonomikoak.

5.- Udalaren eta beste administrazio publiko batzuen arteko diru-ekarpenak, xede duten administrazioaren jardura oro har finantzatzeko.

6.- Udalak ordenantza honen 2. artikuluan jasotako entitateen alde egiten dituen diru-ekarpenak, baldin eta erakunde haien aurrekontuak Udalaren Aurrekontu Orokorrean sartuta badaude, bai haien jardura oro har finantzatzeko erabiltzen badira, bai esleitura dituzten eginkizunen esparruan jardura zehatzak egiteko erabiltzen badira, betiere, deialdi publiko baten ondorio ez badira.

7.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen bosgarren xedapen gehigarrian, zeina toki erakundeek elkartari buruzkoa baita, aipatzen diren elkarteei Udalak kuota gisa —ohiko zein ezohiko— egiten dizkien diru-ekarpenak.

4. artikulua.- Kontzeptua

Dirulaguntzat jotzen da Gasteizko Udalak eta 2. artikuluan aipatutako erakunde autonomoek eta sozietate anonimoek pertsona publiko edo pribatuaren alde emandako edozein laguntza ekonomiko, baldin eta betekizun hauek betetzen badira:

a) Laguntza helburu jakin bat lortzearekin, proiektu bat gauzatzearekin, jardura bat egitearekin edo portaera berezi bat hartzearekin lotuta egotea —lehendik



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

ERANSKINA

gertatutakoak edo gerora gertatzekoak—, edo egoera jakin bat egokitzearekin; ezartzen diren betebeharrak material eta formalak bete beharko ditu onuradunak.

b) Onuradunen zuzeneko kontraprestaziorik gabe ematea laguntza.

c) Finantzatutako proiektuak, ekintzak, jokabideak edo egoerak onura publiko edo interes sozialeko jarduerak bat bultzatzeko edo helburu publiko bat sustatzeko xede izatea.

II. KAPITULUA

Dirulaguntza publikoei buruzko xedapen orokorrak

5. artikulua.- Printzipio orokorrak

Dirulaguntzen kudeaketak printzipio hauei jarraituko die:

- a) Publikotasuna, gardentasuna, lehia, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza.
- b) Eraginkortasuna Gasteizko Udalak ezarritako helburuak betetzerakoan.
- c) Efizientzia baliabide publikoak esleitu eta erabiltzerakoan.

6. artikulua.- Dirulaguntzen Plan Estrategikoa

1.- Gasteizko Udalak, dirulaguntzak ezarri aurretik, plan estrategiko batean zehaztuko ditu lortu nahi dituen helburuak eta ondorioak, horiek lortzeko epea, aurreikus daitezkeen kostuak eta finantzaketa-iturriak, betiere aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-jasangarritasunaren helburuak betetzearen mende.

Deialdiak edo hitzarmenak dagokion dirulaguntzen plan estrategikoa aipatuko du, nola laguntzen duen helburuak lortzen adierazita.

2.- Tokiko Gobernu Batzarrek onetsiko du Gasteizko Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa, eta Udalak, haren erakunde autonomoek eta udal sozietate anonimoek emandako dirulaguntza guztiak jasoko ditu. Bertan jasotako aurreikuspenek hiru urteko indarraldia izango dute. Hala ere, urtero beharrezkoak diren eguneratzeak egingo dira.

3.- Onetsi ondoren, Gizarte Kontseiluari helaraziko zaio, jakinaren gainean egon dadin. Era berean, aurreko planaren ebaluazioaren berri emango da.

4.- Urteko lehenengo lauhilekoan, sail edo zerbitzu bakoitzak kudeatzen dituen dirulaguntzen lerroei buruzko txostena/memoria egingo du, planaren aurrerapen- eta aplikazio-maila eta eta plana aplikatzeak dituen ondorioak eta oihartzuna aztertuz.

5.- Kontu-hartzailetza Nagusiak egingo du plan estrategikoaren finantza-kontrola.

7. artikulua.- Dirulaguntzak emateko beste betetzekizun batzuk

Beste betekizun hauek ere eskatuko dira dirulaguntzak emateko:



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

ERANSKINA

- a) Dirulaguntza ematen duen administrazio-organoaren eskumena.
- b) Kreditu egoki eta nahikoa egotea dirulaguntza emateak dakartzan betebeharrak ekonomikoak betetzeko.
- c) Emateko prozedura izapidetzea.
- d) Eduki ekonomikoa duten administrazio-egintzak aldeztu aurretik fiskalizatzea.
- e) Organo eskudunak gastua onestea.

8. artikulua.- Dirulaguntzak emateko organo eskudunak

1.- Gasteizko Udalaren eremuan, Tokiko Gobernu Batzarra da dirulaguntzak emateko organo eskuduna.

2.- Erakunde autonomoen eta sozietate anonimoen eremuan, bakoitzaren estatutuaren eskumen hori esleitura duten organoek emango dituzte dirulaguntzak; jasota ez badago, erakunde autonomoaren zuzendaritza-kontseiluak edo sozietateen administrazio-kontseiluak.

9. artikulua.- Onuradunak

1.- Dirulaguntza ematearen funts den proiektua edo jarduera bideratu behar duen edo hura ematea zilegi egiten duen egoeran dagoen pertsona joko da dirulaguntzaren onuraduntzat.

2.- Deialdian edo hitzarmenean espresuki aurreikusten denean, orobat eskuratu ahal izango dute onuradun izaera pertsona fisiko edo juridikoek —publiko nahiz pribatu— osatutako elkarteek, ondasun komunitateek, edo beste edozein ekonomia unitate edo ondare bereizi, nortasun juridikorik izan gabe ere, dirulaguntza ematea dakarten proiektuak, jarduerak edo portaerak gauzatzerik badute, edo dirulaguntza ematea dakarren egoeran badaude.

Nortasunik gabeko pertsona fisiko edo juridikoek —publiko nahiz pribatu— osatutako taldeak direnean, berariaz adierazi beharko dira, eskabidean eta emate-ebazpenean, elkarteak bakoitzak proiektua gauzatzeko bere gain hartzen dituen konpromisoak, baita horietako bakoitzak aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa ere, horiek ere onuraduntzat hartuko baitira. Nolanahi ere, taldearen ordezkari edo ahaladun bakar bat izendatu beharko da halakoetan, onuraduna den aldetik taldeak dituen betebeharrak behar bezala bete ahal izateko nahikoa ahalmena duena. Taldea ezingo da desegin Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 39. eta 65. artikuluetan aurreikusitako preskripzio-epena igaro arte.

10. artikulua.- Entitate laguntzaileak

1.- Hauxe izango da entitate laguntzailea: dirulaguntzari dagozkion ondorio guztietarako hura ematen duen organoaren izenean eta haren kontura diharduelarik, funts publikoak onuradunei eman eta banatzen dizkiena, deialdian edo hitzarmenean hala finkatzen denean, edo, jasotako funts publikoak aldeztu aurretik eman edo banatu gabe ere, dirulaguntzaren kudeaketan laguntzen duena. Funts horiek ez dira inolara ere sozietatearen ondarekotzat joko.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

ERANSKINA

2.- Entitate laguntzaileztat jo ahalko dira gainerako organismo eta ente publikoak; partaide bakar edo nagusiztat administrazio publikoak edo zuzenbide publikoko organismo edo erakundeak dituzten merkataritza-sozietateak; Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen bosgarren xedapen gehigarrian aipatzen diren elkarteak, eta ezartzen diren kaudimen- eta eraginkortasun-baldintzak betetzen dituzten gainerako pertsona juridiko publiko edo pribatuak.

3.- Erakunde laguntzaileen betebeharrei eta haiekin sinatu beharreko hitzarmen eta kontratuei dagokienez, dirulaguntzen araudi orokorrean xedatutakoa beteko da.

11. artikulua.- Onuradun edo erakunde laguntzaile izateko betekizunak

1.- Onuradun edo erakunde laguntzaile izan daitezke proiektua edo jarduera egiten dutenak edo laguntza ematea legitimatzen duen egoeran daudenak.

Onuradunek Gasteizko udalerrian izan beharko dute helbidea, behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik. Horretaz gain, pertsona juridikoek Eusko Jaurlaritzaren Elkarleen Erregistro Nagusian —edo dena delako erregistro publikoan— izena emanda egon beharko dute, eta datuak eguneratuta eduki.

2.- Ezin izango dira onuradun edo erakunde laguntzaile izan honako zirkunstantzia hauetan daudenak:

a) Epai irmo batez laguntza edo dirulaguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren zigorrera kondenatua izatea, edo delitu hauetakoren bat egiteagatik: prebrikazioa, eroskeria, ondasun publikoak bidegabe erabiltzea, eragimen-trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak, edo hirigintza-delituak.

b) Borondatezko konkurtsoa deklaratzeko eskaera egin izana, edozein prozeduratan kaudimengabe deklaraturia izatea, hartzekodunen konkurtsoan deklaraturia egotea —salbu eta konkurtso horretan hitzarmen batek efikazia lortu badu—, esku-hartze judizialaren menpe egotea edo Konkurtso Legearen testuategina onesten duen maiatzaren 5eko 1/2020 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera desgaituta egotea, hartzekodunen konkurtsoa kalifikatzeko epaian finkatutako desgaitze-aldia oraindik amaitu ez bada.

c) Administrazioarekin egindako edozein kontraturen suntsiarazte irmoa eragin badute, kausaren batean errudun deklaraturia izan direlako.

d) Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administrazioaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkari direnak sartuta egotea martxoaren 30eko 3/2015 Legean —Estatuko Administrazio Orokorreko goi-kargudunen jarduna arautzen du— edo abenduaren 26ko 53/1984 Legean —Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateriaezintasunei buruzkoa— aipatutako kasuetako batean, edota Hauteskunde Araubide Orokorren buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapenezko kargudun izatea, bertan ezarritako baldintzetan, edo autonomia-erkidegoan gai horiek arautzen dituen araudian ezarritako baldintzetan.

e) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez izatea.

f) Zerga-egoitza erregelamenduz zerga-paradisu gisa kalifikatutako herrialde edo lurralde batean izatea.

g) Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta ez izatea.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

ERANSKINA

h) Ebazpen irmo baten bidez dagokion araudiaren arabera dirulaguntzak lortzeko aukera galtzearekin zigortuta egotea.

i) Ezin izango dira onuradun izan nortasun juridikorik gabeko pertsona fisiko edo juridikoen taldeak, publikoak edo pribatuak, baldin eta kideetakoren batek aurreko debekuren bat badu.

j) Berdintasunerako eskubidea eta sexuagatiko eta/edo generoagatiko diskriminaziorik eza urratzeagatik administrazio-, lan- edo zigor-bidean zehapen irmoa jaso badute.

k) Xedeak edo helburuak, onarpen- edo sarbide-sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduketa, antolaketa edo estatutuak genero-berdintasunaren printzipioaren aurkakoak badira.

l) Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legean edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritako betebeharrak betetzen ez badituzte.

m) Sexuagatik eta/edo generoagatik diskriminatzen duten jarduerak sustatzen badituzte.

n) Dirulaguntzak jasotzeko debekuak honako enpresa hauei ere eragingo die: zuzentzen dituzten pertsonak edo beste zirkunstantzia batzuk direla kausa, susmatu badaiteke debeku horiek dituzten beste enpresa batzuen jarraipena edo deribazioa direla, eraldaketa, bat-egite edo ondorengotzaren ondorioz.

3.- Inola ere ezin izango dira onuradun izan beren onarpen-prozesuan edo funtzionamenduan jaiotza, arraza, sexua, erlijioa, iritzia edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal edo sozial dela-eta diskriminatzen duten elkarteak, ezta beren jardueraren bidez pertsona fisiko edo juridikoen aurkako gorrotoa edo indarkeria sustatzen edo justifikatzen duten elkarteak ere, edo edozein modutan terrorismo-delituak edo delitu horiek egiten parte hartu dutenen delituak goresten edo justifikatzen dituztenak, edo terrorismo-delituen biktimen edo haien senideen izen ona galtzea, gutxiespena edo umiliazioa dakarten egintzak, Elkartzeko Eskubidea Arautzen duen Lege Organikoan jasotakoaren arabera.

Orobat, ezingo dira onuradun izan ez-zilegitasun penalaren arrazoizko zantzuak aurkitzeagatik inskribatzeko administrazio-prozedura eten zaien elkarteak, Elkartzeko Eskubidea Arautzen duen Lege Organikoaren 30.4 artikuluan xedatutakoa aplikatuz, harik eta dagokion erregistroan inskripzioa egitea ahalbidetzen duen ebazpen judizial irmoa eman arte.

4.- Onuradun izateko debekurik ez dutela justifikatzeko, eskatzaileak erantzukizunpeko adierazpen bat egingo du, hargatik eragotzi gabe Gasteizko Udalak aurkeztzen zaizkion adierazpenen egiatzotasuna ikertzeko duen ahalmena.

Gasteizko Udalak egiaztatuko du dirulaguntza eskatzeko eta emateko ezarritako betekizunak betetzen diren, administrazio publikoetatik baliabide telematikoen bidez jasotzen den informazioaren arabera.

12. artikulua.- Onuradunen betebeharrak

Betebehar hauek izango dituzte onuradunek:



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

ERANSKINA

a) Dirulaguntza ematea oinarritu duen helburua betetzea, proiektua gauzatzea, jarduera egitea edo jokabidea hartzea.

b) Betekizunak eta baldintzak betetzen direla justifikatzea, baita jarduera burutu dela eta dirulaguntza ematea ekarri zuen helburua bete dela ere.

c) Udaleko Kontu-hartzailatza Nagusiak egiaztatze eta finantzak kontrolatzeko egin beharreko ekintzen mende jartzea, baita Herri Kontuen Euskal Epaitegiari nahiz eskumen hori esleitura zaien bestelako organoei buruzko legedian aurreikusitako mende ere. Halaber, horiei beren kontrol zereginak egiten laguntzeko betebeharra izango dute; bereziki, ikertu beharreko agiriak ikusten nahiz horien kopiak eskuratzen uztekoa.

d) Diruz lagundutako jardueretarako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik jasoz gero, jakinaraztea. Jakin bezain laster eman beharko da horren berri, eta, betiere, jasotako funtsak justifikatu aurretik.

e) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

Eskakizun hori dirulaguntza ematen denean, ordaintzeko obligazioa onartzen denean nahiz dirulaguntza ordaintzen denean bete beharko da. Gasteizko Udalak ofizioz egiaztatuko du hori, salbu eta onuradunak horren aurka egiten badu, arrazoiak emanez.

f) Onuradunari aplikagarri zaion merkataritza eta sektore legediak eskatzen dituen kontabilitate liburuak, izapidetutako erregistroak eta gainerako agiriak behar bezala ikuskatuta edukitzea, baita deialdi edo ebazpenetan eska litezkeen kontabilitate-egoerak eta berariazko erregistroak ere, egiaztatze eta kontrol ahalmenak egoki betetzea bermatzearen.

g) Jasotako zenbatekoa zertarako baliatu den justifikatzen duten agiriak gordetzea, kontrol eta egiaztapen jardueren mende egon daitezkeen bitartean.

h) Diruz laguntzen dituen programak, jarduerak, inbertsioak edo edozein motatako ekintzak Gasteizko Udalak finantzatzen dituela behar bezala jakinaraztea, baldin eta betekizun hori dagokion deialdian edo hitzarmenean eskatzen bada.

i) Diruz lagundutako programa, proiektu edo jarduerak promozionatzeko lantzen diren kartel, testu eta dokumentuetan erabiltzen diren hizkuntza eta irudiek ez-sexistak eta inklusiboak izan beharko dute, pertsonak edo pertsona-taldeak era bidezkoan irudikatze eta generoaren edo egiturazko beste edozein desberdintasun-iturriren arabera rola eta estereotipoak ez indartzeko.

j) Sexu eta/edo generoagatiko zuzeneko edo zeharkako diskriminazioa dakarren programa, proiektu edo jarduerarik ez sortzea.

k) Genero-ikuspegia eta ikuspegi intersektionala integratzea, herritarren egoera eta premia desberdinak sistematikoki kontuan hartuta, generoaren eta beste desberdintasun-ardatz batzuen arabera desberdintasunak agerian jartzeko edo arintzeko helburu eta jarduketara espezifikoak txertatuta, eta ekintza positiboak aurreikutsita.

l) Egiten diren estatistika, inkesta eta datu-bilketetan sistematikoki sartzeko sexua/generoa (emakumea/gizona/ez-bitarra) aldagaia, edo diruz lagundutako erakundeak egokiagotzat jotzen duen beste edozein formula.

m) Jasotako zenbatekoak itzultzea, ordenantza honetan eta indarrean dauden gainerako arauetan aurreikusitako kasuetan.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

ERANSKINA

13. oinarria.- Dirulaguntzen publikotasuna-

1.- Dirulaguntzen Datu Base Nazionala dirulaguntzen publikotasun-sistema nazional gisa jardungo da, helburu hauekin: gardentasuna sustatzea, politika publikoak planifikatzeko tresna gisa balio izatea, kudeaketa hobetzea eta dirulaguntzen alorreko iruzurraren aurkako borrokan laguntzea.

2.- Dirulaguntzen Datu Base Nazionalari eman beharreko informazioak eduki hauek jasoko ditu:

- a) Dirulaguntzaren oinarri arautzaileei buruzko aipamena.
- b) Deialdiaren laburpena.
- c) Aurrekontuko partida.
- d) Deialdiaren xedea edo helburua.
- e) Onuradunen identifikazioa.
- f) Dirulaguntzen zenbatekoa eta ordaintzeko modua.
- g) Itzulketak.
- h) Jarritako zehapenak.

Era berean, ordenantza honen 11. artikuluko 2. apartatuaren arabera dirulaguntzak lortzeko debekuak dituzten pertsonen identifikazioa jasoko du. Inskripzioa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalan erregistratuta egongo da debeku-epea amaitu eta 10 urte igaro arte.

3.- Udaleko Kontu-hartzailetza Nagusiak izango du Dirulaguntzen Datu Base Nazionalari informazioa emateko ardura.

14. artikulua.- Onuradunak dirulaguntzaren publizitatea egitea

1.- Onuradunek jasotako dirulaguntza eta laguntzen publizitate egokia egin beharko dute, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean xedatutako moduan eta baldintzetan. Era berean, dirulaguntzen xede diren programa, jarduera, inbertsio edo jarduketaren finantzaketaren izaera publikoaren publizitatea egin beharko dute.

2.- Dirulaguntzak jasotzen dituzten onuradunek espresuki aipatu beharko dute Gasteizko Udalaren laguntza izan dutela, argi eta garbi, garatzen diren publizitate-euskarri edo -plataforma guztietan.

Era berean, udal finantzaketaren berri eman beharko dute, baita Gasteizko Udalaren logotipoa jarri ere, diruz lagundutako jarduerarako sortzen edo erabiltzen dituzten material inprimatuetan, oroitzapen-xafletan, hedabide elektroniko eta ikus-entzunezkoetan, iragarkietan eta gainerako hedabideetan.

Argitalpenen kasuan, gainera, edukiaren gaineko erantzukizuneko klausula bat erantsi beharko da, testu honekin: "Gasteizko Udalak diruz lagundu du proiektu hau, baina



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

ERANSKINA

erakunde onuraduna da edukiaren erantzule bakarra." Udal sailek helaraziko diete udal logotipoa onuradunei.

3.- Bi hizkuntza ofizialak (euskara eta gaztelania) erabili beharko dira dirulaguntza jaso duen programa edo jardueraren publizitatea egiteko erabiltzen diren kartel, testu eta dokumentuetan. Era berean, dirulaguntza jaso duen jardueraren inguruko sustapen-ekitaldi publikoek ere elebidun izan beharko dute, eta euskara eta gaztelania erabili beharko dira, ordena horretan.

15. artikulua.- Diruz lagundutako jardueren finantzaketa

1.- Deialdian edo hitzarmenean finantzaketa propioko zenbateko bat eskatu ahalko da diruz lagundutako jarduera estaltzeko; orobat, bateragarritasun- edo bateraezintasun-araubidea zehaztuko da, helburu berarekin Estatuko edo Europar Batasuneko edozein administrazio edo entitate publiko nahiz pribatu edo nazioarteko edozein erakundek emandako bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera eta baliabideak jasotzeko.

2.- Onuradunei emandako diru-kopuruek sortzen dituzten finantza-etekinak dirulaguntzaren zenbatekoari gehituko zaizkio, eta diruz lagundutako jarduerarako baliatuko, salbu eta deialdian edo hitzarmenean besterik xedatzen bada, behar bezala arazoitzen delarik.

Atal hau ez da aplikatuko onuraduna administrazio publiko bat den kasuetan.

16. artikulua.- Bestelako dirulaguntzekiko bateragarritasuna

Gasteizko Udalak ematen dituen dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio edo entitate publiko nahiz pribatu batzuek emandakoekin, deialdian edo hitzarmenean bestelakorik ezarri ezean.

Dirulaguntzaren zenbatekoak ezingo du gaingitu, inolaz ere, diruz lagundutako proiektu edo jardueren kostua, ez berak bakarrik, ez jasotzen den bestelako edozein dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderekin batera.

I. TITULUA

Dirulaguntzak emateko eta kudeatzeko prozedura

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

17. artikulua.- Aldez aurreko tramitazioa

1.- Ebazten den aurrekontu-ekitaldiaren aurreko ekitaldi batean ere onartu ahalko da deialdia, baldin eta gastua hura ematen den urte berean gauzatzen bada eta baldintza hauetakoren bat betetzen bada:

A) Udal aurrekontuan normalean kreditu egokia eta nahikoa izan ohi bada.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

ERANSKINA

B) Kreditu egokia eta nahikoa bada hurrengo ekitaldiari dagokion udal aurrekontuaren proiektuan.

2.- Deialdian agertzen den gehieneko kopuru osoa zenbatsia izango da, eta, beraz, bertan berariaz adierazi beharko da dirulaguntzak emateko baldintza izango dela kreditu egokia eta nahikoa egotea dirulaguntza ematea ebazten den unean.

3.- Baldin eta Gasteizko Udalaren aurrekontu orokorrean behin betiko onesten den aurrekontu-kreditua hasieran aurreikusitakoa baino handiagoa bada, deialdiari aplikatu ala ez erabaki ahal izango du organo kudeatzaileak; lehen kasuan, behar den gastu-dosierra izapidetuko da ebazpena eman aurretik, beste deialdi bat egin beharrik gabe.

4.- Gastu-dosierrean egindako izapide-egintza guztien ondorioak baldintza honen pean jarriko dira: emateko ebazpena ematen denean, egintza haiek egin ziren unean zeuden egitatezko eta zuzenbidezko zirkunstantzia berberak irautea.

18. artikulua.- Urte anitzeko dirulaguntzak

1.- Dirulaguntza emateko ebazpena ematen den ekitaldiaren ondorengo ekitaldiei gastua egozteak dakarten dirulaguntza-deialdiak ere baimendu ahalko dira.

2.- Deialdian, gehienez eman daitekeen zenbatekoa adierazi beharko da, baita urtekako banaketa ere, aurrekontu-araudian ezarritako mugen barruan, eta emandako dirulaguntzetatik eratorritako gastua noiz egitea aurreikusten den kontuan hartuta. Banaketa hori zenbatetsia izango da deialdian eskatzaileek ordainketa aurreratua aukeratu ahal izatea aurreikusi denean. Hasieran onetsitako banaketa aldatzeko, urterokoak berregokitzeko dosierra izapidetu beharko da.

3.- Deialdian berariaz aurreikusi bada konturako ordainketak egiteko aukera, urte anitzeko dirulaguntza bat emateko ebazpenean adieraziko da zenbatekoa nola banatuko den urteka, diruz lagundutako ekintza gauzatzeko erritmoa kontuan hartuta. Ekitaldi bakoitzari egozteko, dagokion zenbatekoaren baliokidea den justifikazioa aurkeztu beharko da aldeztu aurretik. Gauzatzeko egutegia aldatzeko, dagokion erabakia hartu beharko da.

4.- Hurrengo ekitaldietako deialdiak, nolanahi ere, aurrekontu-ekitaldi bakoitzean zuzkidura egokia eta nahikoa egotearen baldintzapean geratuko dira.

II. KAPITULUA

Dirulaguntzak emateko prozedura

19. artikulua.- Emateko prozedurak: konkurrentzia eta zuzenean ematea

1.- Norgehiagoka bidezko konkurrentzia-erregimena izango da dirulaguntzak emateko prozedura arrunta. Hain zuzen ere, dirulaguntzak emateko prozedura hau joko da halakotzat: lehenengo, aurkeztutako eskabideak alderatuko dira, haien artean lehentasun-hurrenkera bat finkatzeko, deialdian aldeztu aurretik finkatutako balorazio-irizpideei jarraituz; ondoren, baloraziorik handiena lortzen dutenei esleituko zaizkie dirulaguntzak, deialdian baimendutako gastu-muga kontuan harturik.

Salbuesenez, eta deialdian hala aurreikusten bada:



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

ERANSKINA

A) Organo eskudunak deialdira bideratutako gehieneko zenbateko osoaren hainbanaketa egin ahal izango du, eskaera guztiei erantzuteko.

B) Dirulaguntzaren izaera edo helburua kontuan hartuta norgehiagoka bidezko konkurrentzia-erregimena izapidetzea ezinezkoa den kasuetan, konkurrentzia sinplea izango da dirulaguntzak emateko prozedura. Kasu horretan, deialdian ezarritako betekizunak betetzen dituzten eskabideak jaso ahala banatuko dira funtsak, aurrekontu-kreditua agortu arte.

2.- Kasu hauetan dirulaguntzak zuzenean eman ahal izango dira:

a) Gasteizko Udalaren Aurrekontu Orokorretan izenez aurreikusten direnean, hitzarmenetan edo emate-ebazpenetan jasotakoaren arabera.

Dirulaguntza izenduntzat hartzen dira xedea, aurrekontu-zuzkidura eta pertsona onuraduna Gasteizko Udalaren Aurrekontu Orokorren gastu-egoeretan zehaztuta dituztenak. Dirulaguntza horien xedea espresuki zehaztu beharko da dirulaguntza hitzarmenean edo emate-ebazpenean.

b) Lege-mailako arau batek agintzen duenean dirulaguntza ematea edo dagokion zenbatekoa; arau hartan aurreikusitako emate-prozedurari jarraituko zaio.

c) Salbuespen gisa, deialdi publikoa egitea zailtzen duen arrazoiren bat (interes publikoa, soziala, ekonomikoa edo humanitarioa) edo behar bezala justifikatutako beste arrazoiren bat egokitzen denean.

3.- Ezingo da eman deialdian zehazten den kopurutik gorako dirulaguntzarik.

III. KAPITULUA

Dirulaguntzak norgehiagoka bidezko konkurrentzia-erregimenean emateko prozedura

20. artikulua.- Tramitatzen hastea

1.- Dirulaguntzak emateko prozedura ofizioz hasiko da, Tokiko Gobernu Batzarrak onetsitako deialdi publikoaren bidez. Deialdiak eduki hau izango du, ordenantza honetan ezarritako beste alderdi batzuk zehaztu badaitezke ere:

a) Dirulaguntzen ordenantza orokor honen aipamena edo, hala badagokio, dena delako sektore-eremuari dagokion Gasteizko Udalaren ordenantza espezifikoarena, eta zein aldizkari ofizialetan argitaratu zen.

b) Dirulaguntzak zer aurrekontu-kredituri egozten zaizkion, dirulaguntzen gehieneko zenbateko osoa kreditu erabilgarrien barruan, edo, halakorik ezean, dirulaguntzen zenbateko zenbatetsia.

c) Dirulaguntzaren banakako zenbatekoa edo, hala badagokio, zenbateko hori zehazteko irizpideak.

d) Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren barruan deialdiari dagokion ildoaren erreferentzia.

e) Dirulaguntza ematearen xedea eta helburua.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

ERANSKINA

f) Dirulaguntza norgehiagoka bidezko konkurrentzia-erregimenaren bidez emango dela adieraztea, edo konkurrentzia sinplearen bidez, hala bada.

g) Dirulaguntzak eskatzeko betekizunak eta egiaztatze modua.

h) Eskabideak bideratu eta ebazteko eskumena duten organoak.

i) Eskabideak aurkezteko modua eta epea.

j) Ebatzi eta jakinarazteko epea.

k) Eskabideari erantsi beharreko agiriak eta informazioak.

l) Hala badagokio, eskabideak birformulatzeko aukera.

m) Dirulaguntza emateko irizpide objektiboak eta, hala badagokio, horien haztapena. Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 21.bis artikuluan xedatutakoaren arabera, balioespen-irizpideen baremoaren % 5 gutxienez eskatzaileen artean emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko ekintzak eta politikak balioestera bideratu behar da, baita dirulaguntza-deialdira aurkeztutako proiektuan genero-ikuspegia txertatzearekin lotutako beste alderdi batzuk ere. Hori guztia, salbu eta objektiboki justifikatzen bada ehuneko hori neurritz kanpoko dela dirulaguntzak emakumeen eta gizonen egoeran duen eraginari dagokionez.

n) Jakinarazteko edo argitaratzeko bidea, administrazio-prozedura erkidearen araudian aurreikusitakoaren arabera.

ñ) Ordainketa aurreratuak eta konturako ordainketak egiteko aukera, hala badagokio, eratu beharreko bermeak adieraziz.

o) Kasua bada, dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea eragin dezaketen zirkunstantzia espezifikoak.

p) Helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin bateragarria edo bateraezina den.

q) Justifikatzeko epea eta modua.

r) Dirulaguntza emateko ezartzen diren baldintzen ez-betetze posibleak mailakatzeko irizpideak. Irizpide horiek proportzionaltasun-printzipioari erantzun beharko diote, eta onuradunak azkenean jasoko duen zenbatekoa edo itzuli beharko duen zenbatekoa zehazteko aplikatuko dira.

2.- Interesdunen eskabideekin batera, deialdian zehaztutako dokumentuak eta informazioak aurkeztuko dira, eskatutako dokumentuak administrazioaren esku egon ezean; kasu horretan, eskatzailea Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan ezarritakoaz baliatu ahal izango da.

3.- Aurreko apartatuetan xedatutakoaren ondorioetarako, deialdian onartu ahal izango da dokumentu jakin batzuk aurkeztu ordez eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpen bat aurkezte. Halakoetan, dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena egin aurretik eskatu beharko zaio adierazpenean jasotako datuak egiazkoak direla egiaztatzen duten agiriak aurkezteko, 15 egunetik gorakoa ez den epe batean.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

ERANSKINA

4.- Eskabideak deialdian xedatutako betekizunak betetzen ez baditu, 10 eguneko epean hutsak zuzen ditzan errekerituko dio organo eskudunak interesdunari. Halaber, ohartaraziko zaio horrela egin ezean eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, beti ere, ebazpena eman ondoren, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 9/2015 Legearen 68. artikulua xedatutakoaren arabera.

21. artikulua.- Instrukzioa

1.- Deialdian izendatzen den organoari dagokio dirulaguntzak emateko prozeduraren instrukzioa.

Udal langileek osatuko dute organo instrukzio-egilea, eta horrek ofizioz egingo ditu ebazpen-proposamena taxutzeko baliatuko diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen jarduerak oro.

2.- Eskabideak jaso, izapidetzeko onartu eta kasu bakoitzean eskatzen diren betekizunak betetzen direla egiaztatu ondoren, balorazio-txostena egingo da, dagokion deialdian ezarritako irizpideen arabera. Horretarako, balorazio-batzorde bat eratuko da.

22. artikulua.- Balorazio-batzordea

1.- Gutxienez hiru pertsonak osatuko dute balorazio-batzordea, eta horien artean izendatuko dira batzordeburua eta idazkaria. Batzordeko kideek dirulaguntzaren xede den gaian espezializatutako teknikariak izan beharko dute. Dagokion deialdian zehaztuko dira batzordeko kideen kopurua eta horien izendapena.

2.- Eskabideak hobeto ebaluatzeko, balorazio-batzordeak eskatzaileei eskatu ahal izango die eskabidean jasotako informazioa zabaltzeko, organo instrukzio-egilearen bidez; orobat, udal zerbitzuei beharrezkotzat jotzen dituen txosten teknikoak egiteko eskatu ahal izango die.

3.- Aurkeztutako eskabideak deialdian finkatutako irizpideen arabera ebaluatu ondoren, balorazio-batzordeak txosten arrazoitu bat egingo du, eta bertan zehaztuko ditu egindako balorazioaren emaitza eta eskabideen arteko hurrenkera.

23. artikulua.- Ebazpen-proposamena eta birformulazioa

1.- Dosierra eta balorazio batzordearen txostena ikusita, organo instrukzio-egileak behin-behineko ebazpen-proposamena egingo du, behar bezala arrazoituta; interesdunei deialdiak zehazten duen moduan jakinaraziko zaie, eta hamar eguneko epea emango zaie alegazioak aurkezteko.

Interesdunak azaldutako egitate, alegazio eta frogak bakarrik agertzen badira prozeduran, eta horiek bakarrik hartzen badira kontuan, ez dago entzunaldiaren izapidea egin beharrik; kasu horretan, egindako ebazpen-proposamena behin betikotzat joko da.

2.- Dirulaguntzaren helburua eskatzaileak garatu beharreko jarduerak finantzatzea bada eta ebazpen-proposamenaren arabera dirulaguntzaren zenbatekoa eskatutakoa baino txikiagoa bada, pertsona edo entitate onuradunari eskabidea birformulatzeko eskatzerik izango da, konpromisoak eta baldintzak eman daitekeen dirulaguntzara doitu ditzaten. Edonola ere, eskabideen birformulazioak errespetatu egin beharko ditu dirulaguntzaren xedea, baldintzak eta helburua, baita eskabideetarako ezarritako balorazio-irizpideak ere.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

ERANSKINA

3.- Entzunaldi-izapidea amaitu eta aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, instrukzio-organoak behin betiko ebazpen-proposamena egingo du. Proposamen horretan, dirulaguntzak zein eskatzaileri ematea proposatzen den eta horiek zenbatekoak diren adieraziko da, eta ebaluazioan erabilitako balorazio-irizpideak zehaztuko dira. Behin betiko ebazpen-proposamena egin ondoren, interesdunei jakinaraziko zaie, onartzen dutela jakinaraz dezaten. Onarpena aurkezteko modua eta epea dagokion deialdian adierazitakoa izango da.

4.- Ebazpen-proposamenek, behin-behinekoak zein behin betikoak izan, ez dute proposatutako onuradunaren aldeko inolako eskubiderik sortzen Gasteizko Udalaren aurrean, laguntza emateko ebazpena jakinarazten ez zaion bitartean.

24. artikulua.- Ebazpena

1.- Tokiko Gobernu Batzarra da deialdia onetsi eta ebazteko organo eskuduna, baina zinegotzi ordezkariari eskuordetu ahaliko dio eskumena.

2.- Ebazpena arrazoitua izango da, eta hartzen den ebazpenaren oinarriak prozeduran egiaztatu beharko dira.

Ebazpenean, halaber, dirulaguntza emango zaion eskatzailearen izena edo eskatzaileen zerrenda eta dirulaguntzaren zenbatekoa zehaztuko dira; horretaz gain, gainerako eskabideak ezesten badira, espresuki adieraziko da.

3.- Dena delako gastua egiteko konpromisoa dakar berekin dirulaguntza emateko ebazpenak.

4.- Deialdian hala aurreikusi bada, dirulaguntza emango zaien eskatzaileen izenak eta gainerako eskabideen ezespen espresua jasotzeaz gain, deialdian onuradun izateko ezarritako administrazio baldintzak eta baldintza teknikoak bete arren bertan finkatutako gehieneko kreditua agortu delako onetsi ez diren eskabideen zerrenda ordenatua barne hartu ahal izango du ebazpen-proposamenak, aurreikusitako balioespen irizpideen arabera bakoitzari emandako puntuazioa adierazita.

Hartara, onuradunetakoren batek dirulaguntzari uko eginez gero, organo emaileak dirulaguntza puntuazio hurrenkeraren arabera hurrengo den eskatzaileari ematea erabakiko du, beste deialdirik egin beharrik gabe, baldin eta uko egitearen ondorioz nahikoa kreditu libre geratu bada.

Dirulaguntza ematen duen organoak aukera horren berri emango die interesdunei, dirulaguntzaren proposamena onar dezaten, hamar eguneko epe luzaezinean. Eskatzaileak edo eskatzaileek proposamena onartu ondoren, administrazio-organoak dirulaguntza emateko egintza bete eta jakinaraziko du.

5.- Prozedura ebatzi eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea ezin izango da sei hilabetetik gorakoa izan. Deialdia Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatuko da epe hori, deialdian ondorioak geroko data batera atzeratu ezean. Prozedura ebazteko ezarritako gehieneko epea igaro eta ebazpen espresurik eman ez bada, eskatzaileek ezetsitatz jo ahal izango dute eskabidea.

6.- Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala eta Gasteizko Udalaren ediktu-taula dira dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenaren jakinarazpenak egiteko hedabidea, betiere Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoari jarraituz.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

ERANSKINA

Dirulaguntzak emateak edo ukatzeak amaiera emango dio administrazio-bideari, eta horren aurka dagozkion errekurtsioak jarri ahal izango dira.

25. artikulua.- Ebazpena aldatzea

1.- Dirulaguntza emateko orduan aintzat hartutako baldintzaren bat aldatzen bada, edo xede bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzen badira, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu egin ahal izango da.

2.- Salbuespen gisa, dirulaguntza emateko ebazpena aldatzeko eskatu ahal izango diote onuradunek dirulaguntza eman duen organoari, baldin eta diruz lagundutako jarduera edo proiektua gauzatzea aldatzen edo zailtzen duten ezusteko zirkunstantziak agertzen badira, edo beharrezkoa bada jarduketa behar bezala gauzatzeko. Eskabidea baimendu ahal izango da, baldin eta dirulaguntzaren xedea edo helburua aldatzen ez bada eta hirugarrenen eskubideei kalterik egiten ez bazaie. Jarduera egiteko epea amaitu baino lehen aurkeztu beharko da eskabidea.

3.- Deialdian ezarriko da zer baldintzatan eskatu ahal izango duten onuradunek diruz lagundutako jarduera aldatzea.

IV. KAPITULUA

Zuzenean emateko prozedura

26. artikulua.- Dirulaguntza izendunak

1.- Emate-ebazpenak arautuko ditu Gasteizko Udalaren Aurrekontu Orokorrean izenez aurreikusitako dirulaguntzak, edo, hala badagokio, dirulaguntza horiek bideratzeko hitzarmenak; bertan ezarriko dira aplikatzekoak diren baldintza eta konpromiso espezifikoak. Emate-ebazpenak edo hitzarmenak oinarri arautzaileen izaera izango dute.

2.- Emate-ebazpenean edo, hala badagokio, hitzarmenaren barruan, gutxienez, honako alderdi hauek zehaztu beharko dira:

- a) Hitzarmena sinatzen duten subjektuak, onuradunaren identifikazio-datuak adierazita.
- b) Xedearen deskribapena.
- c) Aurreikusitako jarduketak eta alderdien konpromisoak.
- d) Dirulaguntza zer aurrekontu-kredituri egozten zaion.
- e) Dirulaguntzaren zenbatekoa.
- f) Ordaintzeko epeak eta moduak, konturako ordainketak eta ordainketa aurreratuak egiteko aukera, eta, hala badagokio, onuradunek jarri beharko duten bermeen araubidea.
- g) Onuradunak noiz eta nola justifikatu behar duen dirulaguntza emateko xedea bete dela, baita jasotako funtsen erabilera ere.
- h) Onuradunak aurkeztu beharreko agiriak, kasua bada.
- i) Indarraldia, betekizunak eta baldintzak.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

ERANSKINA

j) Helburu berarekin beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik jasotzearekin bateragarria edo bateraezina den.

k) Hitzarmena gauzatzearen jarraipena egiteko mekanismoak.

l) Aplikatu beharreko erregimen juridikoa.

m) Hitzarmenaren izaera administratiboa, eta haren edukiari eta aplikazioari buruz sor daitezkeen auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mende jartzea.

n) Hitzarmena aldatzeko erregimena.

27. artikulua.- Dirulaguntza izenduna emateko prozeduraren abiarazpena, instrukzioa eta ebazpena

1.- Prozedura ofizios edo interesdunak eskatuta hasten da, eta ezinbestekoa da Udalaren Aurrekontu Orokorrean kontsignazioa egotea, onuraduna, zenbatekoa eta dirulaguntza izendunaren kontzeptua zehaztuta. Emate-ebazpenarekin edo dagokion hitzarmena sinatzearekin amaituko da prozedura.

Aurrekontu-partida udal aurrekontuan sartzeak ez dio onuradunari inolako eskubiderik emango, harik eta organo eskudunak, ezarritako prozeduraren ondoren, hitzarmena edo emate-ebazpena onesten duen arte.

2.- Prozedura kudeatzen duen administrazio-organismoari dagokio prozeduraren instrukzioa.

Instrukzio-jarduerak honako hauek barne hartu beharko dituzte nahitaez:

a) Instrukzio-organismoaren hasierako txostena.

b) Dirulaguntza arautzen duen hitzarmenaren testua edo ebazpen-proposamena lantzea.-

c) Txosten juridikoa.

d) Justifikazio-memoria, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 50.1) artikuluan ezarritakoaren ildotik.

e) Udaleko Kontu-hartzailetza Nagusiaren fiskalizazio-txostena.

3.- Instrukzioa burutu ondoren, hitzarmena edo emate-proposamena organo eskudunari aurkeztuko zaio, onetsi dezan.

4.- Ebazpen-proposamena edo hitzarmena eta dossierrean jasotako gainerako dokumentazioa igorri ondoren, organo eskudunak ebartziko du dirulaguntza izenduna emateko prozedura. Ebazpenak arrazoitua izan behar du, eta onuradunari jakinaraziko zaio, administrazio-prozedura erkidea arautzen duen oinarritzko araudian aurreikusitakoaren arabera.

Alderdiek hitzarmena sinatuz formalizatuko da dirulaguntzaren onespina.

28. artikulua.- Dirulaguntza zuzenean emateko beste kasu batzuk



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

ERANSKINA

1.- Salbuespen gisa, dirulaguntzak zuzenean eman ahal izango dira, deialdi publikoa egitea zailtzen duen arrazoren bat (interes publikoa, soziala, ekonomikoa edo humanitarioa) edo behar bezala justifikatutako beste arrazoren bat egiaztatzen denean.

Dirulaguntza emateko erabakiak DLOren 28.3 artikuluan xedatutakoa bete beharko du, eta, gutxienez, honako hauek jaso beharko ditu: xedearen definizioa, aplikatu beharreko erregimen juridikoa, onuradunak, dirulaguntza motak, onuradunek beren gain hartutako konpromisoak, emateko prozedura eta justifikatzeko erregimena. Emateko erabakia behar bezala arrazoitu beharko da, interes publikoa, soziala, ekonomikoa edo humanitarioa egiaztatzen duten arrazoiak eta deialdi publikoaren zailtasuna justifikatzen dutenak adierazita.

2.- Lege-mailako arau baten aginduz zuzenean eman beharreko dirulaguntzak arau horren eta Gasteizko Udalar berari aplikatu beharreko gainerako arabera arautuko dira.

V. KAPITULUA

Dirulaguntza publikoak kudeatzeko prozedura

29. artikulua.- Azpikontratatzea

1.- Onuradun batek azpikontratatu egiten duela ulertzen da hirugarren pertsonekin hitzartzen duenean dirulaguntzaren xede den jarduera osorik edo partzialki gauzatzea. Kontzeptu horretatik kanpo geratzen da onuradunak diruz lagundutako jarduera bere kabuz egiteko egin behar dituen gastuen kontratazioa.

2.- Azpikontratazioa onartuko da, salbu eta dirulaguntzaren deialdiak, hitzarmenak edo ebazpenak espresuki baimentzen ez badu. Dagokion deialdi, ebazpen edo hitzarmenean finkatuko da zein den onuradunak hirugarren pertsonekin azpikontratatu dezakeen gehieneko ehuneko diruz lagundutako jarduerari dagokionez. Horrelako aurreikuspenik zehazten ez bada, onuradunak ezingo du kontratatu diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren ehuneko 50 baino gehiago.

Ezingo da azpikontratatu diruz lagundutako jardueraren kostua handitzen duen ekintzarik haren edukari balio erantsirik ez badakarkio.

3.- Hirugarren pertsonekin azpikontratutako jarduerak dirulaguntzaren zenbatekoaren ehuneko 20 gainditzen badu eta 60.000 eurotik gorakoa bada, kontratua idatziz egiteko eskatuko da, eta Udalak espresuki eta aldez aurretik baimendu beharko du.

4.- Ezingo da kontratu bat zatitu dagokion zenbatekoa gutxitu eta hartara aurreko apartatuan exijitutako betekizunak betetzeari itzuri egiteko.

5.- Onuradunaren aurrean baino ez dute erantzun beharko kontratistek, hark izango baitu diruz lagundutako jarduera gauzatzearen erantzukizun osoa administrazioaren aurrean.

6.- Aurreko apartatuan adierazitakoaren ondorioetarako, onuradunaren ardura izango da, besterekin hitzartzen dutelarik diruz lagundutako jarduera gauzatzea, deialdian, hitzarmenean edo ebazpenean finkatutako mugak errespetatzea diruz lagun daitezkeen

ERANSKINA

gastuen izaerari eta zenbatekoari dagokiene; kontratistek, berriz, laguntzeko obligazioa izango dute, hots, muga horiek gainditzen ez direla behar bezala egiaztatzen uztekoa.

7.- Onuradunak inolaz ere ezingo du hitzartu diruz lagundutako jarduera osoa nahiz horren parte bat gauzatzea honako hauekin:

- a) Ordenantza honetako 11. artikuluko debeku egoeraren batean dauden pertsona edo erakundeekin.
- b) Kontratazioaren xede den jarduera bideratzeko beste dirulaguntzaren bat jaso duten pertsona edo erakundeekin.
- c) Bitartekari edo aholkulariekin, baldin eta ordainketa gisa eragiketaren kostu osoaren ehuneko jakin bat finkatzen bada, salbu eta egindako lanaren edo eskaintako zerbitzuen lan-merkatuko balioa aintzat harturik hori justifikatua badago.
- d) Onuradunarekin lotura duten pertsona edo entitateekin, zirkunstantzia hauek egokitu ezean:
 - Dirulaguntza ematen duen organoaren alde aurreko baimena lortzea.
 - Diruz lagundu daitezkeen zenbatekoak ez gainditzea lotutako entitateak egindako kostua.
- e) Deialdi eta programa beraren barruan laguntza edo dirulaguntza eskatu eta eskuratu ez duten pertsona edo entitate eskatzaileekin.

30. oinarria.- Diruz lagundu daitezkeen gastuak

1.- Diruz lagundu daitezkeen gastutzat jotzen dira diruz lagundutako jarduerarekin inolako zalantzarik gabe lotura dutenak, ezinbestekoak direnak, eta deialdi nahiz hitzarmenetan zehaztutako epearen barruan egindakoak. Epe zehatzik ezarri ez bada, dirulaguntzak eman diren urte naturala amaitu baino lehen egin beharko dira gastuak.

Diruz lagundu daitezkeen gastuen eskuratze-kostuak ezin izango du inolaz ere merkatuko balioa gainditu.

2.- Dirulaguntzen deialdian edo hitzarmenean espresuki kontrakoa xedatu ezean, deialdian edo hitzarmenean zehaztutako justifikazio-aldia amaitu aurretik benetan ordaindu dena joko da egindako gastutzat.

3.- Diruz lagundu daitezkeen gastuaren zenbatekoak kontratuen legedian kontratu txikietarako ezarritako diru-kopuruak gainditzen baditu, pertsona onuradunak gutxienez hiru hornitzaileari eskatu beharko die eskaintza egiteko, obra egin, zerbitzua eskaini edo ondasunak emateko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta haren ezaugarri bereziak direla eta merkatuan ez badago horiek egin, eskaini edo hornitzen dituen aski entitate, edo gastua dirulaguntza eman aurretik egin badago.

Aurkeztutako eskaintzen arteko aukeraketa —dirulaguntza justifikatzean edo, bestela, dirulaguntza eskabidearekin batera aurkeztu beharko dira eskaintza horiek— efizientzia eta ekonomia irizpideak aintzat hartuta egin beharko da, eta proposamen ekonomiko onuragarriena aukeratzen ez bada, berariaz justifikatu, txosten bat aurkeztuz.

4.- Baldin eta dirulaguntzaren xedea ondasun inbentariagarriak eraiki, birgaitu edo hobetzea bada, arau hauei jarraituko zaie:



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

ERANSKINA

a) Deialdian edo hitzarmenean zehaztuko da onuradunak zenbat denboraz bideratu behar dituen ondasunak dirulaguntza eman zen helburu zehatzerako; epe hori ezin izango da bost urtetik beherakoa izan erregistro publiko batean inskriba daitezkeen ondasunen kasuan, ezta bi urtetik beherakoa ere gainerako ondasunen kasuan.

Erregistro publiko batean inskribatu daitezkeen ondasunen kasuan, zirkunstantzia hori eskrituran jaso beharko da, baita emandako dirulaguntzaren zenbatekoa ere, eta alderdi horiek dagokion erregistro publikoan inskribatu.

b) Aurreko paragrafoan aipatutako destino-betebeharra ez betetzea —ondasuna besterentzen bada edo kargaren bat ezartzen bada gertatuko da hori— dirulaguntza itzularazteko arrazoa izango da; ondasuna ordainketari atxikita geratuko da, edukitzailea edozein delarik, erregistroko fede publikoak babestutako hirugarren bat izan ezean, edo ondasunak fede onez eta titulu zuzenez edo merkataritza edo industri establezimendu batean —inskribatzekoak ez diren ondasun higikorren kasuan— eskuratu direla justifikatu ezean.

5.- Ez da joko 4. paragrafoan aipatutako destino-betebeharra ez dela bete honako kasu hauetan:

a) Erregistro publiko batean inskribatu ezin diren ondasunak direnean, dirulaguntza eman zen helbururako antzeko baldintzetan balio duten beste batzuekin ordezkatzeko direnean, eta erabilera horri ezarritako aldia bete arte eusten zaionean, betiere administrazio emaileak ordezkapena baimendu badu.

b) Erregistro publiko batean inskriba daitezkeen ondasunen kasuan, administrazio emaileak baimendu behar du destino-aldaketa, besterentzea edo karga. Kasu horretan, eskuratzailerak bere gain hartuko du ondasunen destino-betebeharra gainerako aldirako, eta, hura bete ezean, dirulaguntza itzultzeko betebeharra.

6.- Dirulaguntzen deialdietan edo hitzarmenetan, ondasun inbentariagarriak amortizatzeko egoki irizitako arau bereziak ezarriko dira. Hala ere, amortizazio-gastua diruz laguntzeko modukoa izateko, baldintza hauek bete beharko dira:

a) Dirulaguntzek ondasunak erosten lagundu ez izana.

b) Amortizazioa oro har onartutako kontabilitate-arauen arabera kalkulatzeko.

c) Kostua diruz lagundu daitezkeen aldiari soilik lotzea.

7.- Diruz lagundutako jarduerarekin harreman zuzena badute eta hura egoki prestatu edo bideratzeko ezinbestekoak badira bakarrik baliatu ahal izango da dirulaguntza honako hauei aurre egiteko: finantza gastuak, aholkularitza juridikoaren edo finantza aholkularitzaren alorreko gastuak, notario eta erregistro gastuak, adituei ordaintzetik sortuak eta berariazko administrazio gastuak. Salbuespen gisa, banku-bermearen gastuak diruz lagundu ahal izango dira, deialdiak edo hitzarmenak hala aurreikusten duenean.

Gastu hauek ez dira inolaz ere diruz lagunduko:

a) Banku-kontuetako interes zordunak.

b) Interesak, gainordainak eta zehapen administratibo eta penalak.

c) Prozedura judizialetakoko gastuak.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

ERANSKINA

8.- Zergak diruz lagundu daitezkeen gastuak dira, baldin eta dirulaguntzaren onuradunak benetan ordaintzen baditu. Ez dira inola ere diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko zeharkako zergak, berreskuratu edo konpentsatu badaitezke, ezta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere.

9.- Oro har onartzen diren kontabilitate-printzipio eta -arauen arabera zentzuzkoa den zatian egotzi beharko dizkio zeharkako kostuak diruz lagundutako jarduerari pertsona onuradunak, eta, betiere, kostu horiek jarduera burutzen deneko aldiari dagozkion neurrian.

Zeharkako kosturik egonez gero, deialdian edo hitzarmenean ezarriko da jardueraren kostu osoaren zer ehuneko jotzen den hari egotz dakiokkeen zeharkako kostutzat. Nolanahi ere, ehuneko hori, behar bezala arrazoitutako justifikaziorik ezean, ezin izango da Udalak emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren % 10 baino handiagoa izan. Garapenerako lankidetzaren arloan, ehuneko hori % 14ra irits daiteke.

VI. kapitulua

Dirulaguntzak justifikatzea

31. oinarria.- Dirulaguntzak justifikatzea

1.- Justifikazioa dirulaguntzaren onuradunaren nahitaezko egintza da, eta berekin dakar ezarritako baldintzak betetzen direla eta dirulaguntza emateko egintzan aurreikusitako helburuak lortu direla egiaztatzea.

2.- Justifikazioa hurrengo artikuluan ezarritako moduren batean dokumentatuko da, deialdian edo hitzarmenean ezartzen denarekin bat etorritik.

3.- Dirulaguntzak justifikatzeko epea hiru hilabetekoa izango da gehienez, jarduera egiteko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita, salbu eta deialdiak edo hitzarmenak beste epe bat ezartzen badu.

4.- Dirulaguntza ematen duen organoak justifikaziorako ezarritako epea luzatu ahal izango du, betiere, epearen erdiari dagokiona baino gehiago ez bada luzapena, eta hirugarrenen eskubideei kalterik egiten ez bazaie.

5.- Ezarritako justifikazio-epea igaro eta administrazio-organo eskudunari aurkeztu ez bazaio, organo horrek onuradunari eskatuko dio hamabost egun balioduneko epe luzaezinean aurkez dezala. Ezarritako epe horretan justifikazioa aurkezten ez bada, itzultzeko eskatuko da eta, hala badagokio, dagokion dossier zigortzailea abiaraziko. Justifikazioa epe horretan aurkezteak ez du onuraduna salbuesten ezar lekitzkiekeen zehapenetatik.

32. artikulua.- Justifikazioaren modalitateak

1.- Justifikazioa dagokion deialdian edo hitzarmenean ezarritako moduan egingo da, jarraian adierazten diren modalitateen arabera:

- a) Justifikazioko kontu arrunta.
- b) Justifikazioko kontua, auditoria-txostena aurkeztuta.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

ERANSKINA

- c) Justifikazioko kontu sinplifikatua.
- d) Moduluko egiaztapena.
- e) Kontabilitateko egoera-orriak aurkeztea.

2.- Oro har, dirulaguntzaren onuradun diren pertsonen edo erakundeek egindako gastuaren justifikazioko kontu arrunta aurkeztu beharko dute, deialdian edo hitzarmenean beste justifikazio-sistema bat ezarri ezean.

3.- Tokiko Gobernu Batzarrak onetsiko ditu justifikazio-modalitate bakoitzak barne hartzen dituen inprimakiak, Udaleko Kontu-hartzaileak txostena egin ondoren, udal dirulaguntzak kudeatzean sor daitezkeen premia aldakorretara egokitzearen.

33. artikulua.- Justifikazioko kontu arrunta

Justifikazioko kontu arruntak, gutxienez eta oro har, honako dokumentu hauek jasoko ditu:

- a) Egindako proiektuaren azalpen-memoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak zehaztuta. Agiri hauek erantsi beharko dira:
 - Dirulaguntza jaso duen jarduera dela eta egindako azterlan, programa, argitalpen, kartel eta bestelako agiri grafiko nahiz idatzizkoen ale bana.
 - Emakumeen eta gizonen egoeran duten eragina ezagutzeko, eta betiere diruz lagundutako jarduerak ahalbidetzen badu, deialdietan onuradunei eskatuko zaie sexuaren eta/edo generoaren arabera banakatutako informazioa emateko honako hauei buruz:
 - ° emandako zerbitzuaren azken onuradunak edo erabiltzaileak;
 - ° entitateko titullarrak eta plantilla;
 - ° kontratatu den entitateko plantillakoak, halakorik bada;
 - ° aplikatutako berdintasun-neurrien eraginkortasuna ebaluatzea ahalbidetzen duten beste adierazle batzuk.
 - Deialdian edo hitzarmenean adierazten diren gainerako agiriak.
- b) Jardueren kostua justifikatzen duen memoria ekonomikoa, justifikazioko kontu arruntaren ereduaren arabera. Atal hauek izan beharko ditu:
 - **1.- Funts propioen edo beste entitate batzuetatik jasotako justifikazioa.**
 Proiektua edo jarduera entitate publiko edo pribatu batek baino gehiagok finantzatzeko badute edota entitate onuradunaren funts propioekin finantzatzeko bada bete beharko da atal hori.
 - **2.- Diruz lagundutako proiektuari dagozkion gastuen egiaztagirien zerrenda.**
 Udal dirulaguntzari egozten zaizkion gastuak justifikatzeko bete beharko da atal hori. Gastu motak zerrendatuko dira, hartzekoduna, kontzeptua, data



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

ERANSKINA

eta zenbatekoa zehaztuz. Era berean, fakturak eta merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea duten edo administrazio-eraginkortasuna duten gainerako dokumentuak aurkeztuko dira, baita horiek ordaindu direla egiaztatzen duten dokumentuak ere.

Eskudirutan ordaintzekotan, aintzat hartu beharko da legez ezarritako mugapena.

Egindako jarduerak beste modu batez egiaztatu ezin direnean bakarrik onartuko dira jaso-izanaren agiriak. Edonola ere, jasotze-agiria sinatzen duen pertsona ezin izango da enpresaburua edo profesionala izan, kasu horretan dagokion faktura egin eta eman beharko baitu ezinbestean.

Jasotze-agiriak datu hauek hartu beharko ditu barne:

- Jaulkitzailearen zein jasotzailearen izen-deiturak, IFZ eta helbidea.
- Gauzatutako eragiketaren edo zerbitzuaren deskribapen zehatza, eta haren prezio osoa.
- PFEZren atxikipena (dagokion zerga-agentzian ordaindu dela egiaztatzen duen agiria erantsi behar da).
- Tokia, data eta jasotzailearen sinadura.

– **3.- Proiektu edo jardueraren diru-sarrera eta gastuen balantzea.**

– **4.- Langile-gastuak eta Gizarte Segurantzakoak.**

Dirulaguntza jaso duen proiektuaren langile-gastuak eta Gizarte Segurantzakoak justifikatuko dira, pertsona edo entitate onuradunaren kontura izan diren nominak eta TC agiriak (egungo RNT eta RLC agiriak) erantsita.

– **5.- Gastu, dieta eta bidaien banan-banako likidazioa.**

Bidaia, dieta, joan-etorri, mantenu eta antzekoen gastuak justifikatuko dira. Gastu horiei dagozkien merkataritza-agiriak erantsiko dira (erabilitako garraibidearen txartelak, tiketak, fakturak...), zenbatekoa zehazteko oinarri baitira.

– **Erantzukizunpeko adierazpena, alderdi hauetaz:**

- Fakturak eta ordainagiriak aurreikusitako helburu edo xedea gauzatzetik sortu direla eta Gasteizko Udalaren ekarpenarekin finantzatu direla jasotzen duen adierazpena.
- Onuradunak proiektua gauzatzeko **soldatapeko langilerik** ez duela jasotzen duen adierazpena.
- Entitate edo pertsona onuradunak diruz lagundutako jarduerari egozten dizkion **zeharkako kostuen** adierazpena, normalean onartzen diren kontabilitate-printzipio eta -arauen arabera dagokion zatian; benetan egozten den kopurua ezingo da izan deialdian edo hitzarmenean adierazten den ehunekotik gorakoa.
- Pertsona edo entitate onuradunaren adierazpena, non diruz lagundutako jarduera finantzatzeko baliatu diren bestelako diru-sarrera edo dirulaguntzak zedarrituko diren, **zenbatekoa eta jatorria** zehaztuta, edo, hala badagokio, ez duela bestelako laguntzarik ez eskatu ez eskuratu azaltzeko adierazpena.

34. artikulua.- Justifikazioko kontua, auditoria-txostena aurkeztuta.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

ERANSKINA

1.- Deialdi edo hitzarmenak aurreko artikuluan adierazitako memoria ekonomikoan sartu beharreko dokumentazioa gutxitzea ezarri ahal izango du, baldin eta:

a) Justifikazio-kontuarekin batera, Kontuen Auditoreen Erregistro Ofizialean — Kontabilitateko eta Kontuen Auditoretzako Institutuaren (ICAC) mendekoa— jardule gisa inskribatutako kontu-auditore baten txostena aurkezten bada.

b) Kontu-auditoreak justifikazio-kontua berrikusten badu, deialdian edo hitzarmenean zehazten den irismenarekin, eta, hala badagokio, Udaleko Kontu-hartzailetza Nagusiak proposatzen dituen jarduketa- eta gainbegiratze-arauak betez.

c) Aurreko artikuluan aipatutako proiektuaren azalpen-memoriaz gain, justifikazio-kontuak memoria ekonomiko laburtua barne hartzen badu.

2.- Onuraduna urteko kontuak ikuskatzera behartuta badago, eta kontu-auditoretza erregulatzen duen araudiaren mende dagoen auditore batek egin behar badu hori, auditore berak berrikusiko du justifikazio-kontua, salbu eta deialdiak edo hitzarmenak beste auditore bat izendatzea aurreikusten badu.

3.- Onuraduna ez badago behartuta urteko kontuak ikuskatzera, berak izendatuko du kontu-auditorea, salbu eta deialdian edo hitzarmenean aurreikusten bada organo emaileak izendatuko duela. Justifikazio-kontua berrikusteak dakarren gastua diruz lagundu daitekeen gastutzat hartu ahal izango da deialdian edo hitzarmenean hala ezartzen denean, eta ezartzen den mugaraino.

4.- Onuradunak kontu-auditorearen esku jarri beharko ditu ordenantza honen 12.f) artikuluan xedatutakoa aplikatuz eska dakizkiokeen liburu, erregistro eta dokumentu guztiak, eta gorde egin beharko ditu, egiaztapen- eta kontrol-jarduketak egiteko.

5.- Deialdian edo hitzarmenean ezarriko da memoria ekonomiko laburtuaren edukia, baina, gutxienez, datu hauek jasoko ditu: diruz lagundutako jarduerak egiteko egindako gastuen egoera-orri adierazgarri bat, gastuak behar bezala multzokatuta, eta, hala badagokio, hasieran aurrekontuan sartutako zenbatekoak eta izandako desbideratzeak.

6.- Dirulaguntzaren xedea atzerrian egin beharreko jarduera edo proiektu bat denean, artikulua honetan eta ordenantza honen 38. artikuluan aurreikusitako araubidea berrikuspina egin behar den herrialdean jarduten duten ikuskatzaileei dagokiela ulertuko da, betiere herrialde hartan lanbidean jarduteko gaikuntza-araubide bat badago eta, hala badagokio, kontabilitate-egoeren auditoretza egiteko betebeharra aginduzkoa bada.

Aipatutako herrialdean kontu-auditoretzaren lanbidean jarduteko gaikuntza-sistematik ez badago, artikulua honetan aurreikusitako berrikuspina herrialde hartan ezarritako auditore batek egin ahal izango du, betiere organo emaileak izendatzen badu, kalitate egokia bermatzen duten irizpide tekniko batzuen arabera.

35. artikulua.- Justifikazioko kontu sinplifikatua

1.- 60.000 eurotik beherako dirulaguntzetarako, justifikazio-kontu sinplifikatua ezarri ahal izango da justifikazio-sistema gisa deialdian edo hitzarmenean.

2.- Justifikazioko kontu sinplifikatuak honako dokumentu hauek jasoko ditu gutxienez:

a) Egindako proiektuaren azalpen-memoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak zehaztuta. Honako hauek erantsi beharko dira:



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

ERANSKINA

- Dirulaguntza jaso duen jarduera dela eta egindako azterlan, egitarau, argitalpen, kartel eta bestelako agiri grafiko nahiz idatzizkoen ale bana.

Emakumeen eta gizonen egoeran duten eragina ezagutzeko, eta betiere diruz lagundutako jarduerak ahalbidetzen badu, deialdietan onuradunei eskatuko zaie sexuaren eta/edo generoaren arabera banakatutako informazioa emateko honako hauei buruz:

- ° emandako zerbitzuaren azken onuradunak edo erabiltzaileak;
- ° entitateko titullarrak eta plantilla;
- ° kontratatu den entitateko plantilla, halakorik bada;
- ° aplikatutako berdintasun-neurrien eraginkortasuna ebaluatzea ahalbidetzen duten beste adierazle batzuk.

- Deialdian edo hitzarmenean adierazten diren gainerako agiriak.

- b) Jardueren kostua justifikatzen duen memoria ekonomikoa, justifikazioko kontu sinplifikatuaren ereduaren arabera. Atal hauek izan beharko ditu:

- 1.- Diruz lagundutako jarduerarekin lotuta egindako gastuen zerrenda, honako hauek zehaztuta: faktura-zenbakia, jasotzailea/hornitzailea, kontzeptua, zenbatekoa eurotan eta ordainketa-data.
- 2.- Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten diru-sarreraren zerrenda, diru-sarrera publiko edo pribatu guztiak zehaztuz, bazkideek diruz lagundutako jarduerak egiteko jarritako kuotak barne. Honako hauek adieraziko dira: zenbatekoa; diru-sarreraren jatorria den entitatea; administrazio publikoen, erakunde pribatuen edo publikoen dirulaguntzak, eta beste diru-sarrera batzuk.
- 3.- Erabili ez diren zenbatekoen itzulketa, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa likidatzearen.

- Erantzukizunpeko adierazpena, alderdi hauetaz:

- Fakturak eta ordainagiriak aurreikusitako helburu edo xedea gauzatzetik sortu direla eta Gasteizko Udalaren ekarpenarekin finantzatu direla jasotzen duen adierazpena.
- Onuradunak proiektua gauzatzeko **soldatapeko langilerik** ez duela jasotzen duen adierazpena.
- Entitate edo pertsona onuradunak diruz lagundutako jarduerari egozten dizkion **zeharkako kostuen** adierazpena, normalean onartzen diren kontabilitate-printzipio eta -arauen arabera dagokion zatian; benetan egozten den kopurua ezingo da izan deialdian edo hitzarmenean adierazten den ehunekotik gorakoa.
- Onuradunaren adierazpena, non diruz lagundutako jarduera finantzatzeko baliatu diren bestelako diru-sarrera edo dirulaguntzak zedarrituko diren, **zenbatekoa eta jatorria** zehaztuta, edo, hala badagokio, ez duela bestelako laguntzarik ez eskatu ez eskuratu azaltzeko adierazpena.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

ERANSKINA

3.- Nolanahi ere, organo kudeatzaileak egokitzen jotzen dituen eta dirulaguntza behar bezala aplikatu dela egiaztatzeko aukera ematen duten justifikanteak egiaztatuko ditu, deialdian edo hitzarmenean ezartzen diren laginketa-tekniken bidez. Horretarako, hautatutako gastuen frogagiriak bidaltzeko eskatu ahal izango dio pertsona edo erakunde onuradunari.

36. artikulua.- Moduluko egiaztapena

1.- Deialdian edo hitzarmenean modulu bidezko emate- eta justifikazio-erregimena aurrekusi ahal izango da, honako betekizun hauek betetzen diren kasuetan:

a) Diruz lagundu daitekeen jarduera edo jarduera hori egiteko behar diren baliabideak unitate fisikoetan neurtu ahal izatea.

b) Diruz lagundu daitekeen jarduerak edo, kasua bada, erabili beharreko baliabideek merkatuan duten balioaren ebidentzia edo erreferentzia egotea.

c) Moduluen zenbateko unitarioa —zati finko bat eta beste bat aldakorra izan dezake, jarduera-mailaren arabera— txosten tekniko arrazoiu batean oinarrituta zehaztea. Txosten horretan, moduluaren prezioa zehazteko kontuan hartu diren aldagai tekniko, ekonomiko eta finantzarioak jasoko dira, dirulaguntzaren xede den jarduera edo zerbitzua egiteko zenbatetsitako merkatuko batez besteko balioak oinarri hartuta.

2.- Deialdian edo hitzarmenean onesten diren modulueterako balio espezifikoek aurrekontu-ekitaldi bat baino gehiago barne hartzen duten kopuruei badagozkie, eguneratzeko modua adieraziko da, eta aurreko paragrafoan aipatzen den txosten teknikoan justifikatuko.

3.- Gerora sortutako zirkunstantziak direla-eta moduluak ezartzeko eta eguneratzeko kontuan hartutako baldintza ekonomiko, finantzario edo teknikoak aldatzen badira, organo eskudunak moduluen zenbatekoaren berrikuspena onartuko du, dagokion txosten teknikoaren bidez arrazoituta.

4.- Agiri hauek aurkeztu beharko dira dirulaguntza moduluen bidez justifikatzeko:

1. Dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak bete direla justifikatzeko memoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita.

2. Justifikazio-memoria ekonomikoa, gutxienez honako hauek jasoko dituen:

a) Modulutzat jotako unitate fisikoen kopuruaren egiaztapena edo, bestela, onuradunaren adierazpena.

b) Dirulaguntzaren zenbatekoa, jarduketa-memorian kuantifikatutako jarduerak eta deialdian edo hitzarmenean aurreikusitako moduluak oinarri hartuta kalkulatuta.

c) Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko jasotako bestelako diru-sarrera edo dirulaguntzen zerrenda, zenbatekoa eta jatorria zehaztuta.

5.- Onuradunek ez dute aurkeztu beharrik izango kontabilitate- edo merkataritza-arloan garrantzia duten liburu, erregistro eta dokumentuak, deialdian edo hitzarmenean berariaz kontrakorik aurreikusten ez bada.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

ERANSKINA

37. artikulua.- Kontabilitateko egoera-orriak aurkeztea

1.- Dirulaguntza kontabilitateko egoera-orriak aurkeztuz justifikatzea aurreikusi ahal izango da deialdi edo hitzarmenean, honako kasu hauetan:

a) Dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko behar den informazioa zuzenean ondoriozta badaiteke onuradunak nahitaez prestatu beharreko kontabilitate-informazioari erantsitako finantza-egoeretatik.

b) Aipatutako kontabilitate-informazioa onuradunari dagokion ordenamendu juridikoan aurreikusitako sistemaren arabera ikuskatu bada.

2.- Artikulu honen 1. apartatuan deskribatutako informazioaz gain, kontu-auditoreak egindako txosten osagarri bat ematea aurreikusi ahal izango du deialdiak edo hitzarmenak, kontu-auditoretza erregulatzeko araudian aurreikusitakoari jarraituz.

3.- Kontu-auditoretza baten irismena nahikotzat jotzen ez bada, deialdiak edo hitzarmenak kontu-auditoreak egin beharreko berrikuspenaren irismen gehigarria ezarriko du, dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko oinarri gisa balio duen kontabilitate-informazioari dagokionez. Kasu horretan, lanaren emaitzak artikulu honen 2. apartatuan aipatzen den txosten osagarrian sartuko dira, eta kontu-auditoreak jaso beharreko ordainsari gehigarria diruz lagundu daitekeen gastutzat hartu ahal izango da, deialdi edo hitzarmen horretan hala ezartzen denean, eta bertan ezartzen den mugaraino.

VII. KAPITULUA

Dirulaguntzak ordaintzea

38. artikulua.- Dirulaguntza ordaintzea

1.- Dirulaguntza emateko zio izan zen jarduera edo proiektua gauzatu, helburua bete edo jokabidea hartu dela egiaztatzen denean ordainduko da dirulaguntza.

2.- Deialdiak edo hitzarmenak hala adierazten badute, konturako ordainketak egin ahal izango dira. Konturako ordainketak egiteak ordainketa zatikatuak egitea ekar dezake, diruz lagundutako ekintzak gauzatu ahala aurkezten diren justifikazioei dagokien kopurua ordainduz aldiko.

3.- Orobat, deialdiak edo hitzarmenak hala zehazten dutenean, aldeztu aurreko ordainketak egin ahal izango dira, hau da, justifikatu aurretik eman ahal izango dira funtsak, baldin eta dirulaguntzari lotuak diren jarduerak aurrera eraman ahal izateko ezinbesteko finantzaketa bada.

4.- Banku-transferentziaren bitartez ordainduko da dirulaguntza, pertsona edo entitate onuradunak eskabidean horretarako adierazten duen kontu korrontean.

5.- Ez da dirulaguntza ordainduko baldin eta Udalak emandako beste dirulaguntzaren bat artean justifikatu gabe badu pertsona edo entitate onuradunak, edo, lehendik emandako dirulaguntzaren bat itzultzeko eskatu zaiolarik, itzuli ez badu. Nolanahi ere, ezingo da dirulaguntza ordaindu harik eta pertsona edo erakunde onuradunak zerga-betebeharrak beteta eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta eduki arte, ezta dirua itzuli behar delako ebazpen baten ondorioz zordun bada ere.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

ERANSKINA

II. TITULUA

Dirulaguntzak itzultzea

I. KAPITULUA

Dirulaguntza emateko ebazpenaren baliogabetasuna

39. artikulua.- Dirulaguntza emateko ebazpena baliogabetzat jotzeko arrazoiak

1.- Dirulaguntza emateko ebazpena deuseztatzeko arrazoiak dira:

a) Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47. artikuluan adierazitakoak.

b) Krediturik ez izatea edo kreditu nahikorik ez izatea, Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko Foru Arauan ezarritakoaren arabera.

2.- Dirulaguntza emateko ebazpenaren deuseztagarritasun-kausak dira ordenamendu juridikoaren gainerako arau-hausteak, eta, bereziki, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 48. artikuluan jasotakoak.

3.- Dirulaguntza emateko egintza aurreko apartatueta aipatutako kasuetako batean sartzen bada, dirulaguntza ematen duen organoak ofizioz berrikusiko du, edo, hala badagokio, kaltegarritzat joko du, eta, ondoren, aurkaratu egingo du, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 106. eta 107. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

4.- Deuseztasun- edo deuseztapen-deklarazio judizial edo administratiboak berekin ekarriko du jasotako zenbatekoak itzultzeko betebeharra.

II. KAPITULUA

Itzulketa

40. artikulua.- Itzultzeko arrazoiak

1.- Kasu hauetan itzuli beharko dira jasotako zenbatekoak, eta dirulaguntza ordaindu zenetik itzulketa bidezkoa dela erabakitzen den egunera arteko berandutze-interesak eskatuko dira, edo zordunak itzulketa sartzen duen egunera artekoak, hura baino lehenagokoa bada:

a) Eskatutako baldintzak faltsutuz edo dirulaguntza eskuratzea galaraziko zuketenak ezkutatu eskuratu bada dirulaguntza.

b) Dirulaguntza eskuratzeko oinarri izan zen xedea, jardura zein proiektua osotasunean edo zati batean betetzen ez bada, edo dena delako jokabidea hartzen ez bada.

c) Justifikatzeko obligazioa bete ez bada edo behar adina justifikatu ez bada.

d) Zabalkundea emateko neurriak –ordenantza honen 14. artikuluan jasoak– hartzeko obligazioa bete ez bada.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

ERANSKINA

e) Finantzak aztertu eta kontrolatzeko aurreikusitako ekintzei aurre egin, aitzakiak jarri, enbarazu egin nahiz uko egin bazaie, baita kontabilitatearen, erregistroaren edo agiriak gordetzeko obligazioaren alorrean bete beharrekoak bete ez badira ere, baldin eta horrek ezinezko bihurtzen badu honako hauek egiaztatzea: jasotako funtsak zertarako baliatu diren, helburua bete den, diruz lagundutako jardueren errealitatea eta erregularitasuna, edo helburu bererako, batera, beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk –dela estatukoa dela Europar Batasuneko– edo nazioarteko erakunderen batek emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik jaso den.

f) Udalak onuradunei eta entitate laguntzaileei jarritako betebeharrak bete ez badira, edo dirulaguntza eman zitzaientean haiek beren gain hartutako konpromisoak bete ez badituzte, betiere dirulaguntza ematerakoan oinarritzat hartu ziren helburuak lortzeko moduari, jarduera bideratzeko moduari, proiektua gauzatzeko moduari nahiz hartu beharreko jokabideari badagozkio edo hari eragiten badiote.

g) Udalak onuradunei eta entitate laguntzaileei jarritako betebeharrak bete ez badira, edo dirulaguntza eman zitzaientean haiek beren gain hartutako bestelako konpromisoak bete ez badituzte, eta horrek ezinezko bihurtzen badu honako hauek egiaztatzea: jasotako funtsak zertarako baliatu diren, helburua bete den, diruz lagundutako jardueren errealitatea eta erregularitasuna, edo helburu bererako, batera, beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk –dela estatukoa dela Europar Batasuneko– edo nazioarteko erakunderen batek emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik jaso den.

h) Europar Batasuneko araudietan estatuek emandako laguntzei buruz xedatutakoaren ildotik itzultzeko beharra dakarren erabakia hartzen bada.

i) Dagokion deialdian edo hitzarmenean aurreikusitako gainerako kasuetan.

2.- Baldin eta ia bere osotasunean betetzen baditu onuradunak edo entitate laguntzaileak hartuak zituen konpromisoak, eta orobat egiaztatzen badu zalantzarik gabe konpromisoak betetzeko asmoz jardun duela, diruz lagundutako jarduera zein neurritan ez den bete hartuko da kontuan itzuli beharreko zenbatekoa zehazterakoan, proportzionaltasun-printzipioa errespetatuz.

3.- Halaber, ordenantza honen 16. artikuluko 2. apartatuan aurreikusitako egoera egokitzen bada, itzuli egin beharko da diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen duen diru-kopurua, eta horri dagozkion atzerapen interesak exijitu ahal izango dira.

III. KAPITULUA

Preskripzioa, itzultzeko betebeharra duten pertsonak eta itzularazteko prozedura

41. artikulua.- Preskripzioa, itzultzeko betebeharra duten pertsonak eta itzularazteko prozedura

Itzulketa aitortu edo likidatzeko eskubidearen preskripzioari, eskubide hori betetzera behartuta dauden pertsonen eta prozedurari dagokionez, dirulaguntzei eta administrazio-prozedura erkideari buruzko araudi orokorrean xedatutakoa beteko da.

III. TITULUA

Dirulaguntzen finantza-kontrola



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala
www.vitoria-gasteiz.org

ERANSKINA

42. artikulua.- Udalaren finantza-kontrolerako eskumena

Udaleko Kontu-hartzailatza Nagusiaren eskumena da Gasteizko Udalak emandako dirulaguntzen finantza-kontrola egitea, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren hamalagarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

IV. TITULUA

Dirulaguntzen alorreko arau-hauste eta zigorrak

43. artikulua.- Arau-hausteak eta zigorrak

Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean tipifikatutako ekintza eta omisioak izango dira dirulaguntzen alorreko administrazio arau-hausteak, eta bertan ezarritako prozedurari jarraituz zigortu ahal izango dira.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.- Gauzazko dirulaguntzak

Gauzazko dirulaguntzat hartuko dira ondasunak, eskubideak edo zerbitzuak ematean dautzan laguntzak, baldin eta horiek eskuratzeko xede bakarra hiru garren bati ematea bada.

Dirulaguntzen araudi orokorrean xedatutakoari jarraituko zaio hori arautzeko.

Bigarrena.- Garapenean laguntzeko dirulaguntzak

Nazioarteko lankidetzako dirulaguntzak arautzen duen ekainaren 16ko 794/2010 Errege Dekretua da garapen-bidean dauden herrialdeetan ekintzak burutzeko dirulaguntzak justifikatzeko araubidea, "Uraren eta saneamenduaren alorreko lankidetzako proiektuak" eta "Garapenean laguntzeko urteko proiektuak" ildoei dagokienez.

2.- Justifikaziorako aplikatu beharreko alderdiak garapenerako lankidetzarako deialdietan bertan eta hitzarmen izendunetan jasotakoak izango dira.

Hirugarrena.- Araudi aplikagarria

Oinarri hauetan aurreikusi gabekoetan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta horren erregelamendua —uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsia— aplikatuko da, baita aplikagarri diren gainerako arauak ere.

XEDAPEN IRAGANKORRA. Prozeduren erregimen iragankorra

Ordenantza hau indarrean sartu aurretik dirulaguntzak emateko abiarazitako prozedurei orduan indarrean zegoen araudia aplikatuko zaie. Horretarako, prozedura dirulaguntzak norgehiagokaren bidez emateko deialdia onesten den unetik hasten dela joko da, edo emateko ebazpena ematen den unetik, zuzeneko dirulaguntzen kasuan.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA. Arauak indargabetzea

Indargabetuta geratuko da 2005eko ekainaren 17an onetsi zen Gasteizko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

ERANSKINA

AZKEN XEDAPENA. Indarrean jartzea

Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean osorik argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza hau, edo 2023ko urriaren 1ean, lehenago argitaratzen bada osorik.